

AUTOEBALUAZIO ARIKETAK

1.GAIA

Irakasle taldea
ELORDI GÜENAGA, UDANE
HUITZI EGILEOR, JOSEBA XABIER
IZAGIRRE OTAEGI, ANDREA
UGARTEMENDIA YEROBI, MAIDER
URANGA ITURRIOZ, MARÍA JOSÉ
ZUBELDIA ETXEBERRIA, JOSUNE

- 1) Noiz eman zitzaion bultzada nagusiki gure inguruan erizaintzako prestakuntza akademikoari?
 - a) XIX. mendean zehar.
 - b) XX. mendean zehar.
 - c) XX. mendearen lehenengo hamarkadetan.
 - d) Erantzun guztiak okerrak dira.

- 2) Noiz egin zuten bat emaginek, praktikanteek eta erizainek Osasun Laguntzaile Teknikoa tituluari?
 - a) 1973.
 - b) 1977.
 - c) 1953.
 - d) 1963.

- 3) Osasun Laguntzaile Teknikoa tituluari:
 - a) Lehenetsi egiten ziren trebetasun teknikoak, eta Lehen Mailako Arreta Unitateko Buruen aginduen mende zeuden.
 - b) Lehenetsi egiten ziren komunikazio trebetasunak, eta agindu medikoen mende zeuden.
 - c) Lehenetsi egiten ziren erizaintzako zainketa integral guztiak.
 - d) Lehenetsi egiten ziren trebetasun teknikoak, eta agindu medikoen mende zeuden.

- 4) Noiz sartu ziren erizaintza eskolak unibertsitatean?
 - a) 1973.
 - b) 1977.
 - c) 1953.
 - d) 1963.

- 5) Zer ondorio izan zuen erizaintza unibertsitatean sartzeak?
 - a) Irakaskuntza orientazioa aldatu zen.
 - b) Prestakuntza zabaldu zen ospitale eremutik harago.
 - c) Eduki berriak garatu ziren.
 - d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

- 6) Zer da EUE?
 - a) Europako Unibertsitate Eremua.
 - b) Erizaintza Unitate Espezializatua.
 - c) Erizaintza Unitate Erantsia.
 - d) Erizaintza Unibertsitate Espezializatua.

- 7) Zer dira ECTS kredituak?
 - a) Osasun Tituluen Eremu Bateratua.

- b) Osasun Arloko Eskolak.
 - c) Ikasturte bakoitzak ikasleari eskatzen dion lan karga.
 - d) Erantzun guztiak zuzenak dira.
- 8) Zer jakintza arlotan gauzatu ziren erizaintzako ikasketak Gradu gisa?
- a) Zientzia Soziosanitarioen arloan.
 - b) Osasun Zientzien arloan.
 - c) Zientzia orokorren arloan.
 - d) Medikuntza Zientzien arloan.
- 9) Zenbat ECTS kreditu ditu UPV/EHUko Erizaintzako Graduak?
- a) 420 ECTS.
 - b) 140 ECTS.
 - c) 240 ECTS.
 - d) Erantzun guztiak okerrak dira.
- 10) UPV/EHUko Erizaintzako Graduaren ikasgaiak honela banatzen dira:
- a) Oinarrizko prestakuntza, erizaintzako oinarrizko prestakuntza, funtsezko ikasgaiak eta ikasgai praktikoak.
 - b) Oinarrizko prestakuntza, hautazkoak, nahitaezkoak, kanpoko praktikak eta GRAL.
 - c) Erizaintzako oinarrizko prestakuntza, hautazkoak, kanpoko praktikak eta GRAL.
 - d) Erizaintzako eta osasun zientzietako ikasgaiak.

ERANTZUNAK

Galdere zenbakia	Erantzun zuzena
1	b
2	c
3	d
4	b:
5	d
6	a
7	c
8	b
9	c
10	b